

HITZ BITAN

ARRAUNKETA

Trainerilen Euskadiko Txapelketak jokatu dira gaur eta bihar Hondarribian

Gaur jokatu da Euskadiko Txapelketako sailkapen saioa (17:00etan), erlojupekoan. Bikoteka aterako dira izena eman duten 18 traine- rilak, Bizkaiko bat eta Gipuzkoako bat, ondorengo ordenan: Elantxobe, Loiolatarra, Bateratze-Santiagotarrak, Deustu-San Juan, Mundaka-San Pedro, Portugalete-Ur Kirolak, Arkote-Orio, Isuntza-Hondarribia, Santurtzi-Donostia Arraun, eta Bermeo-Zumaia. Zumaiarrek oraindik ez dute erabaki parte hartuko duten edo ez, aurreko asteburuan Gipuzkoako Txapelketan gertatu istiluen ondorioz.

ESKUBALOIA

Leon-Altea eta Ciudad Real-Valladolid finalerdiak jokatu dira gaur Espainiako Kopan

Bidasoak eta Portlandek ezin izan zuten herenegun Espainiako Kopako lehen kanporaketa gainditu. Gaur finalerdiak jokatu dira, Ademar Leon-Altea eta Ciudad Real-Valladolid, eta bihar finala.

ERRUGBIA

Azken txanpa Hernanirentzat Espainiako txapelari eusteko, gaur, Madrilen

Hernani (Gipuzkoa) Espainiako Jubenil Mailako txapeladuna da, eta asteburuan txapel horri eusteko ahalegina egingo du, Madrilén. Hernaniarrek kanporaketa gogorra gainditu zuten finalerdi honetara heltzeko. Gipuzkoarrek Madrilgo Liceo Frances izango dute kontrario, gaur, Madrilgo Ciudad Universitaria zelaian (11:00). Bigarren finalerdia Canoe-Tatami izango da. Finala bihar jokatu da (12:00)

Adolfo Almirali omenduko du gaur Donostiako Atletikok

Gipuzkoako errugbiaren bul-tzatzaile handienetako bat izan zen Adolfo Almirali kataluniarra, eta hori eskertzeko, Donostiako Atletiko Klubak omenaldia egingo dio gaur. Almirali beti egon da errugbiari lotuta, eta hala segituko du. Antigua auzoko (Donostia) Istingorra Elkar-tean izango da ekitaldia.



MONTANES / EFES

Ladislao Kubala Bartzelonako futbolari ohia hil da

74 urterekin zendu zen atzo Ladislao Kubala, Bartzelonak izan duen jokalaririk handienetakoa. 1950ean fitxatu zuen Bartzelonak, eta 11 denboralditan lau aldiz irabazi zuen Espainiako Liga, bost aldiz Espainiako Kopa eta bi aldiz Feriako Kopa (gaur egungo UEFA). Komunistek Hungaria hartu zutenean Kubalak ihes egin zuen handik, eta

bizimodu gogorra jasan behar izan zuen Espainiara iritsi zen arte. Real Madril eta Bartzelona saiatu ziren jokalaria fitxatzen eta, azkenean, Kataluniako taldeak lortu zuen. Kubalak Hungaria, Txekoslovakia eta Espainiako selekzioekin jokatu zuen. Argazkian, Real Madrilgo jokalaria ohi Alfredo Di Stefanorekin ageri da —ezkerrekoa da Kubala—.

UR POLOA. Ohorezko Mailan ariko da talde nafarra hurrengo denboraldian**Larrainako jokalariei harrera egin die Miguel Sanzek Nafarroako Jauregian igoera ospatzeko**

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Larraina ur polo talde nafarrak Ohorezko Mailan jokatu du hurrengo denboraldian, berriki igoera lortu ondoren. Garaipena ospatzeko, Nafarroako Jauregian hartu zituen taldeko kideak, atzo, Miguel Sanz presidenteak. Jokalarien ahalegina txalotu eta eskertu zuen Sanzek.

Jokalariekin, noski, taldeko entrenatzaile Fermin Mansok eta Rafael Irurita presidenteak hartu zuten parte atzoko ekitaldian. Taldea Ohorezko Mailara eramanez ondoren, entrenatzaile lana utzi egingo du Mansok eta datorren denboraldirako berri baten bila dabil taldea.

Miguel Angel Lizari hiru urtez izan zen Larrainako entrenatzaile eta haren postua betetzera iritsi zen iaz Manso. Taldea

ezaguna zuen, aurretik hemezortzi urtez izan baitzen taldeko entrenatzaile. Atzo pozik zen Manso. «Egin beharreko lana bete dut, eta hori da garrantzitsuen», erran zuen.

Ez da erraza izan aurtengo denboraldia Mansorentzat eta bere jokalarientzat. Denboraldi hasiera ona izan zen, denborald-aurrei serioa egin ondoren, baina urtarilaren bukarran bolada txarra hasi zen Larrainarentzat. Azken txanpan, orde, bere neurria eman du taldeak eta Ohorezko Mailarako igoera lortu dute jokalariek.

Guztien motibazioa eskertu eta haien ahalegina txalotu zuen Mansok, eta datorren denboraldira begira, taldea Ohorezko Mailari eusteko gai izanen dela azpimarratu zuen. «Oinarri sendoa dugu; pare bat postu indartzea besterik ez da

behar», erran zuen Larrainako entrenatzaileak.

1987an igo zen aurreneko Ohorezko Mailara

Larrainako ur polo taldea 1969. urtean sortu zen, Fermin Mansoren eskutik, hain zuzen ere. Azpiko mailetan hainbat urte eman ondoren, Bigarren Mailarako igoera lortu zuen taldeak 1980an, eta, zazpi urteren buruan, 1987an, Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen Larrainak, aurreneko aldiz bere historian.

1989-90eko denboraldia, orde, txarra izan zen taldearentzat. Mansok taldea utzi behar izan zuen urte batez eta Larraina jaitسي egin zen. Orain, entrenatzaile berarekin, Ohorezko Mailan egoteko txartela eskuratu dute berriz ere jokalaria nafarrek.

EGITARAUA

FUTBOLA

Espainiako Bigarren B Maila,**I. multzoa:**

Barakaldo-Celta	(gaur, 19:30)
Deportivo-Alaves	(gaur, 20:00)
Ourense-Aurrera	(bihar, 18:00)
Lugo-Amurrio	(bihar, 17:00)
Sporting-Gernika	(bihar, 19:00)
Compostela-Athletic	(bihar, 19:00)

Espainiako Bigarren B Maila,**II. multzoa:**

Reala-Figueroes	(gaur, 17:00)
Gramanet-Eibar	(gaur, 19:00)
Real Union-L'Hospitalet	(bihar, 19:00)
Osasuna-Bartzelona	(bihar, 19:00)
Terrassa-Beasain	(bihar, 19:00)

ARETO FUTBOLA

Espainiako Ohorezko Maila:

Titulurako azken fasea (final-laurdenak):
Antena 3-MRA Xota (gaur, 18:30)

SASKIBALOIA

Espainiako ACB Liga:

Pamesa-Tau Baskonia (gaur, 18:45)

Frantziako Nazional 1:

Denek Bat-Z. Federal (gaur, 20:00)

TXIRRINDULARITZA

Afizionatu maila:

Murgiako Oroko Andra Mariaren saria.
Gaur, 15:30. Euskaldun Torneorako baliagarria. 126 kilometroko proba.

Mendi bizikleta:

Munduko Kopa jokatu da asteburuan
Madrilgo Casa de Campon.

Pista:

Ibizako San Antonio belodromoan, Pistako Ligako bigarren proba. Euskadiko selekzioak parte hartuko du. Hirugarren dago sailkapenean 10 punturekin.

MOTOZIKLISMOA

Frantziako Sari Nagusia:

Le Manseko zirkuituan jokatu da bihar
Munduko Txapelketako laugarren proba. Gaur egingo dira azken entrenamendu saioak.

DUATLOIA

Euskadiko Zirkuitua (azken proba):

Azkoitiko III. Duatloia. Gaur, 17:00etan.
7 kilometro korrika, 30 kilometro bizikletan eta 3 kilometro korrika. Boxeak: Azkoitiko Balda enparantzan. Irteera eta helmuga: Plaza-Berrin. Antolatzaileak: Azkoitiko triatlói taldea.

ATLETISMOA

Maratoi erdia:

Donostiako II. Maratoi Erdia.
Bihar, 10:30ean. Irteera eta helmuga Donostiako Zurriola pasealekuan. Probako errekorrak: 1:06:23 gizonezkoena, eta 1:16:13 emakumezkoena.

MENDIA

Mendi lasterketa:

Baigorri-Urepel mendi lasterketa. Gaur, 08:00etan. 40 kilometroko proba. Bihar, 07:30ean, Urepel-Baigorri.

HERRI-KIROLAK

Idi probak:

Etzi 21:00etan hasita, Getxon (Bizkaia), pisu librean arituko dira hiru uztarri: Iñaki Lopategirena, Olidenena eta Hipe Laredorena.